

BIOLENTZIA

Biolentzia gizakion ezaugarri bat da; pertsonak bakarrik ulertzen, bizitzen eta erabiltzen dugun zerbait. Hala ere, pertsonak ez gara berez biolentoak; biolento izaten irakasten digute.

Biolentzia jarrera eta/edo portaera pertsonal edo instituzional bat da. Aktiboa edo pasiboa izan daiteke, eta pertsonak bere buruarekin, beste pertsonekin eta naturarekin duen erlazio harmoniatsua hausten du, bortxazko ekintzen bidez (biolentzia situazionala) eta/edo bortxazko egoeren bidez (biolentzia instituzionala).

Biolentzia gatazkak konpontzeko modu bat da, zoritxarrez, gure artean hedatuena, eta nahastutako alderdiak gutxien asebetetzen dituena. Baina gatazka konpontzeko era bat dela azpimarratu behar dugu, ez gatazka bera.

Biolentziarik eza gatazkak konpontzeko beste modu bat da, gure iritziz egokiagoa, eta horren aldeko apustu sendoa egiten dugu.